

Nork bere burua zaintzeko laguntza emanaz

Maripat Murphy
Itzultzailea: Xabier Yurramendi Sarasola
Osasun Saileko Euskara Teknikaria

1991n, AWWAK irabazi-asmorik gabeko nazioarteko garapenerako WATER FOR PEOPLE (WFP) erakundea sortu zuen, honako xedea zuela: edateko ur, osasun eta higiene proiektuen bitartez munduan zeharreko herritarren bizitza hobetzea. Ordutik hona, ia 400 WFP proiektu burutu dira, garapen eta trantsizio bidean dauden 38 herritako herri- eta hiri-komunitateei onurak ekarriz. Hautatuak izateko, proiektuek behar larrietara zuzenduta egon behar dute, teknologia egokiak eta tokiko materialak baliatu eta komunitateak eusteko modukoak izan. Proiektuak bideragarri egiteko eta baliabide eta diru-iturri mugatuei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, WFP erakundeak bat egiten du bertako erakunde pribatu, agentzia publiko eta gobernuz kanpoko erakundeekin. Mende berri baten atarian gaudela, erakundea garatzen doa komunitateen behar aldakorrei erantzun nahirik; eta heziketan, trebatze-lanetan eta oinarritzko trebetasunetan inbertsioak areagotzen, nork bere burua zain dezan laguntzekotan.

In 1991, AWWA established the nonprofit international development organization WATER FOR PEOPLE (WFP) with the mission of improving lives worldwide through drinking water, sanitation, and hygiene projects. Since then, nearly 400 WFP projects have been completed, benefiting rural and urban communities in 38 developing and transitioning countries. To be eligible, projects must address critical needs, use appropriate technology and local materials, and be sustainable by the community. To facilitate projects and make the most of limited funding and resources, WFP partners with indigenous private institutions, public agencies, and nongovernmental organizations. As WFP enters a new century, the organization is evolving to meet the changing needs of communities and investing more in education, training, and basic skills to help people help themselves.

Urarekin zerikusia duten proiektuen eta garapenerako beste ahaleginen bitartez, WATER FOR PEOPLE munduan zeharreko komunitateen bizi-kalitatea hobetzen ari da.*

Estatistikak hotzak dira. Munduko mila milioik baino gehiagok ez dute behar adina ur edangarri eta osasungarri edateko aukerarik. Ia hiru mila milioiri zerbitzu sanitario egokiak falta zaizkie. Egunero, 11.000 haur hiltzen dira urarekin zerikusia duten gaixotasunen ondorioz (urteko 4 milioi hildako, guztira).¹

Zenbaki horiek, hain lazgarriak izanik ere, ez dute gertatzen den guztiaren berri ematen; alegia, zer gertatzen zaion jendeari zerbitzu sanitariorik gabe edo edateko ur-iturri fidagarri eta segururik gabe bizi denean. Urarekin zerikusia duten gaixotasunek lana eta heziketa oztopatzen dituzte. Izan ere, nekazaritza-eremuetan lanean edo eskolan ikasten aritu beharko luketen heldu eta haurrek orduak eta orduak ematen dituzte urrutitik ura garraiatzen. Eskulan ezinduarekin eta oinarritik azpi-azpiko heziketa-aukera horrekin komunitateak garapenerako zimendurik gabe bizi dira, eta jendea pobretasunaren eta gaixotasunaren zikloaren baitan harrapatu- turik geratzen da.

1991. urtetik hona, WATER FOR PEOPLE erakundeak 380 proiektu burutu ditu garapen- eta trantsizio-bidean dauden 38 herritan. Hona hemen herri horiek eta dagozkien proiektu kopuruak:

Bolivia-49	India-11
Brasil-1	Jordania-1
Bulgaria-16	Kenya-4
Burkina Faso-3	Malawi-3
Cabo Verde-1	Mexiko-19
Dominikar Errepublika-5	Mikronesia-2
Ekuador-13	Mozambique-2
Eritrea-1	Nepal-5
Errumania-1	Nikaragua-47
Eslovakia-7	Niger-1
Etiopia-3	Palau-1
Filipinak-2	Polonia-5
Gaza-1	Sierra Leona-2
Ghana-1	Sri Lanka-1
Ginea-2	Thailandia-2
Guatemala-49	Togo-1
Haiti-4	Ukraina-7
Honduras-65	Vietnam-32
Hungaria-7	Zambia-3

*. Egileak eskerrak eman nahi dizkie Paul Sobiech, Jody Camp eta Judi Kraszewski Water For Peopleko kideei, WFP programa eta proiektuetako informazioa, argazkiak eta beste dokumentuak eskaintzeagatik; baita Arun Debi, R.F. Westonekoari, Mendebaleko Bengalako artsenikoa erazteko proiektuari buruzko eta herritarren onurarako izan zuen eraginari buruzko galdera-sortari erantzuteagatik. Era berean, mila esker Bengalako Ingeniaritzako Eskolari (Deemed Unibertsitatea) Howrah-en, Indian; beraiek bildu dituzte artsenikoa monitorizatzeko eta tratatzeko txostena eta irudi teknikoak.

1. UNICEF. Web orria: <http://www.unicef.org>

WATER FOR PEOPLE-ek (WFP) berak egindako zenbait estatistikarekin alderatu ditu aurreko zenbakiak. Nazioarteko garapenerako erakunde pribatu eta irabazi-asmorik gabeko hori AWWAk sortu zuen, 1991n, urarekin zerikusia zuten proiektuen bidez herritarren bizi-kalitatea hobetzekotan. Hamarkada bat oraindik iritsi ez, eta WFPk 38 herritan ia 400 proiektu burutu ditu, munduan zeharreko nekazaritza-eremuko eta hirietako komunitateei onurak ekarriz (ikusi aurreko zerrenda).

Lan hori gauzatu ahal izan da, hainbat nazioarteko erakundek esango luketen bezala, aurrekontu murrizt baten bidez. Izan ere, 1998. urtearen amaiera arte WFPk zuen diru-sarrerara ez zen milioi bat dolarrera iristen. Zenbateko honen ehuneko 80 baino gehiago zuzenean doa urarekin zerikusia duten garapen-ahalegi-nak babestera, gutxienez 500 dolar eta gehienez 20.000 dolarreko diru-laguntzaren bidez. Zenbatekorik txikiena ere nahikoa izan liteke nekazaritza eremuko herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Aurrekontu murrizt horrekin, batetik, eta soilik horretan lanean jarritako sei langilerekin, bestetik, WFPk estrategia sortzaileak garatu behar izan ditu eskura dituen baliabideetatik ahalik eta etekinik handiena lortzeko. Ura lanbide duten AWWAko ehunka kidek boluntario eran proiektuak finantzatzen lagundu dute. Zenbait taldek, hala nola eskualdeko ur-elkarteek, Rotary eta Kiwanis klubek eta eskolek laguntza eskaini dute, ekonomikoa zein moralala, behartsuak direnei ur, sanitate, osasun eta higiene hobea eskaintzeko, WFPk duen xedea munduan zehar zabalduz.

WFPk, gainera, bere baliabideak —txikiak edo handiak, nazioartekoak zein tokikoak— hedatzen ditu beste entitateekin bat eginik. WFPk munduan zehar dau-den garapenerako beste erakunde batzuekin lan-talde bat osatu du eragozpen politi-koak gainditu, diru-iturri berriak zabaldu eta esperientzia sendotzeko asmoz. Arlo horretan, WFPk banakako proiektuak bideratzen ditu komunitateen behar, eskaera ofizial eta tokiko baliabideak ondo ezagutzen dituzten tokiko erakunde pri-batuekin, agentzia publikoekin eta gobernuz kanpoko erakundeekin (GKE) elkarla-nean.

Urteak behar izaten dira ikasgaia geureganatzeko

Hasierako urteetan, erakundeak oinarrizko zenbait ikasgai irakatsi zituela aitortzen du Paul Sobiech zuzendariak. Ipar Amerikan, ura lanbide zutenak, asmo onez, diruak eta teknologiak ur-arazo guztiei irtenbidea emango zitelakoan zeuden. Arrakastatsuek izateko, ordea, proiektuek eusteko modukoak izan behar dute. WFPk ondo aztertuta duen bezala, proiektuari eusteko hiru baldintza bete behar dira: 1) teknologia bertako egoerari egokitzea; 2) proiektuaren onuradunak sistema erabiltzeko eta iraunarazteko trebatu ahal izatea; eta 3) proiektua mantentzeko eta bideratzeko, komunitatearen babesa nahikoa izatea, diru-iturria agor-tu eta teknologietan adituak etxeratu ondoren.

Teknologiak egokia izan behar du

Gainbehera egin duten proiektu bat baino gehiago, Sobiech-ek adierazten duenez, herri garatuetako adituen esku utzi izan dira, «horiek pentsatzen baitute arazo guztiei erantzuteko gauza direla, eta bertan egon gabe, segur aski bertara

egokituko ez den plan bat aurkezten dute. Proiektuak eskualdetik kanpoko trebezia tekniko "eskatzeko" duen guztietan, bandera gorria igo beharko litzateke, bertara egokituko ez den teknologia proposatuko dela jakiteko». Irtenbideak ematekotan, proiektuak komunitate bakoitzak dituen behar eta baliabideetara egokituko beharko lirateke. Bertako saltzaileengandik eskuratutako hornikuntzak ekipamendu sofistikatua baino hobekia dira, horrelako ekipamendua mantentzea eta ordezkatzeko zaila eta garestia baita.

Onuradunek bere egin behar dute proiektua

Tokian tokikoek badakite zer behar duten eta, askotan, nola eskuratu ere bai. Bertakoek beren ur-sistemak planifikatzen eta eraikitzen inplikaturatuta egon behar dute, bai arazo larriei bai geroko beharrei heltzeko. Mantentzeko teknikak bereganatu behar dituzte; era honetan, segurtasunez, sistemek ondo funtzionatzen urte morderok jardun dezakete. Parramos Grande (Guatemala) herri menditsuan, WFPk bertako COMENSArekin elkarlanean iturginak trebatzen dituzte urandela, ikuztegiak eta hoditeriak eraikitzen, eta konponketak egiteko oinarritzko lanabesez hornitzen dituzte.

Praktikotasunari begira, teknologia soila da komunitate batek duen irtenbiderik eskuragarriena proiektua, zentzu guztietan, bere egin dezan. WFPren aginduz, proiektu baten onuraduna izateko materiala eta lana jarri ez ezik, diru-inbertsioak ere egin behar dira. Bere proiekturako Parramos Grandeko herritarrek 759 dolar bildu zituzten, herriko familia bakoitzeko hiru eguneko lansaria, gutxi gorabehera.

Komunitatearen garapena da giltzarrietako bat

Teknologia egokia eta proiektuaren onuradunen inplikazioaz gain, proiektuaren euskarri den beste oinarritzko zutabea komunitatearen garapena da. Horrexegatik, hain zuzen ere, WFP proiektuen barneko osagai batek komunitateari azpiegitura iraunkorra sortzen lagundu nahi die: herriko ur-batzorde eta higiene-irakasleena, batetik, eta sistema orain eta gerora begira babesteko gai izango diren beste baliabideak eskuratzeko, bestetik.

Proiektuek irizpide batzuetan dute oinarri

Edateko uraren proiektuetara baino harantzago zuzentzen dira WFPren ahaleginak, eta sanitatea, higiena eta osasun heziketa ere hartzen dituzte barne. Nazioarteko Ur-elkarte berriak ur-ziklo osoari aurre egin behar zaiola onartzen duen bezala², WFPk baiesten du edateko uraren eta hondakin-uren auziak elkarren artean lotuta daudela. WFP proiektuen irizpideetan bi ikuspegi horiek islatzen dira; bai urari eta sanitatari dagokienez, baita historian zehar erakundeak bere egindako ikasgaiari dagokienez ere.

Diru-laguntzarako aukera izateko, proiektu batek ondokoak bete beharko ditu: 1) tokiko uraren behar larriei eta beronekin loturiko sanitate-beharrei zuzendua izatea; 2) ur- eta sanitate-teknologia praktikoa, kostu txikikoa, soila eta egokia erabiltzea; 3) bertako esperientzia erabiltzea, eta ur-, sanitate- eta higiene-jarduerak bateratzea; eta 4) komunitate onuradunaren baliabideen bidez eutsi

2. Zeilig, N.M., *Improving Global Water Services*, Jour. AWWA, 91:10:30 (Oct. 1999).

ahal izango den tokiko material baliagarria erabiltzea. Horrez gainera, WFPren laguntza gabe oso probabilitate gutxi egon behar du tokiko edozein erakundek komunitatearen beharrei erantzuteko; proiektua aurrera eramateko bertako erakundearen partaidetza izan beharko du; eta, azkenik, proiektuaren onuradunek inplikaturik egon behar dute proiektuaren alderdi guztietan.

WFPren ahaleginak hiru kategoriatan sailkatzen dira: zenbait herri jakinen garapenerako herri-programak, proiektu independenteak eta lankidetzan egindako proiektuak. Hurrengo sekzioak kategoria horiek definitu eta proiektu-mota bakoitzaren adibideak ematen ditu.

Herri-programetan ardazteak areagotu egiten du arrakastaren ehunekoa

Alde handiaz, proiektuen sailkapenean nagusia herri-programaren garapena da; izan ere, WFPren lanaren % 80 hartzen baitu. WFPren lana, gero eta gehiago, herri jakinetan ardazten ari da —Bolivia, Guatemala, Honduras, eta, laster, Malawi— *Adopt-A-Country* programaren bitartez. WFPk 1999an finantzaturako 76 proiektuetatik 60 herri jakinetan daude kokatuta.

Adopt-A-Country programaren bizkarrezurra WFPren herri-koordinatzaileen lan-sarea da. WFPk bertan dituen begiak eta belarriak baitira erakundearen eta proiektuen onuradunen arteko lotura. Eta baita proiektuen ikuskaketan laguntzaile: zer dabilen ondo eta zer ez; diru-iturriak erabilgarri eta eragingarri diren ala ez; eta, eragozpenak saihestuz, azken proiektuaren txostenak prestatzen dituzte. «Gure herri-koordinatzaileek», dio Sobiech-ek, «ez dute zertan uretan adituak izan. Bada goi-mailako teknologia behar ez duten proiektuetarako bertako aditua denik. Herri-koordinatzaileen zeregina gehienbat bideratzaile izatea da».

WFPk bizimodua aldatu du Guatemalan

Guatemalan, WFPk eta bertako COMENSAk elkarlanean 30 proiektu baino gehiago burutu dituzte, eta 10.000 jende baino gehiagori arrisku gabeko ur edan-garria eta sanitate hobea ekarri diete. Herri batzuentzat, instalaturako ur-sistemak aspaldiko garai bateko ur-garraiaketatik hona emandako lehendabiziko urratsa izan ziren. Beste komunitate batzuentzat, berriz, zerbitzu berriek hamarraldi luzean gerra zibilak suntsitutako sistemak eta azpiegitura ordezkatu zituzten.

Xonca, Vijolom 1 eta Quejchip herrietako txorrota-gune bakoitzean komunitatearen ur-sistemek kontrol-balbulak falta zituzten. Horren ondorioz, behean kokaturiko txorrotek jasotzen zuten ur guztia; goikoetan, berriz, ez zuten ur-tantarik jasotzen. Txorrota-gune bakoitzean kontrol-balbulak instalatzeaz gain, hiru herrietako eskoletan konketak eraikitze eskaera egiteko iradokitzen zuen proiektuak. Komunitateek kostuaren % 10 jarri zuten eta eskulana eta bertako material baliagarria. COMENSAk laguntza tekniko eta higiene-heziketa eskaintzeaz gain, herrietako ur-sistemetan lanean diharduten langileak eta ur-batzordeak trebatu zituen.

Herri horietako bitan burutu ziren lanak arrakastatsuak izan ziren; baina Quejchip komunitateak, bere sistema zaharreko lerroak miazteko egin behar ziren indusketa-lanak oztapatuz, berrikuntza-lanei uko egitea erabaki zuen. «Guk beti herritarrei argi utzi nahi izan diegu honelako proiektu batek zenbat lan eskatzen

duen», dio Lynn Roberts Guatemalako herri-koordinatzaileak. «Zenbaitetan, herri-tarrak proiektuak zenbat lan dakarren jabetzen direnean, erabateko etendura gertatu gabe, ur-sistemak maila on samarrean funtzionatuko ez ote duen susmoa hartzen dute». Xonca eta Vijolom 1 herrietan, ordea, WFPk jarritako 2.125 dolarreko diru-laguntzaz gain dirutan eta denboran inbertitutakoaren ordaina ia 100 familiarri zerbitzu hobek eskaintzea izan da.

Beste proiektu bat jarri zen abian Asociación Mayak, maiak diren emakume ehungilez osatutako talde herrikoiak, WFPra jo zuenean komunak eraikitzekeo laguntza bila. Lynn Roberts-ek bertako igeltseroak trebatu ez ezik emakumeak ere lagundu egin zituen 83 komun aireztatu lortzeko diru-eskabidea aurkeztean, El Triunfo herriko etxe bakoitzeko bat. Dirua Guatemalako Britainiako Enbaxadak jarri zuen, eta bertako herritarrek eta Asociación Mayak eskulana, hondarra, antolakuntza eta gogo bizia jarri zituzten. Nahiz eta finantziazio-proiektuan zuzenean inplikaturik ez egon, WFPk higie-heziketari eta osasun orokorrari buruzko klaseak emateko jarraipen-proiektua finantzatu zuen.

Herrien aldeko jarrerak abantaila ugari eskaintzen ditu

Herrietan ardazturiko xedeak proiektu-laguntzarako eta kalitatea ziurtatzeko egitura eskaintzea baino areago joatea eskatzen duela nabarmentzen du Sobiech-ek. «Luzaroan, bertako proiektuak abian jarri, ebaluatu eta eusten zailak dira. Arriskuan jartzen zara herri batera hotz-hotzean sartzen bazara. Sierra Leonan, esaterako, gure proiektua ezin izan zen gauzatu bertan gerran zebiltzalako». Gehiago dio Sobiech-ek: «Erakundea den aldetik, WFP eragingarriago eta sinengarriago da bertako lankideak baditugu; eta bertan bizi, bertako arazoak eta gatazka-lekuak ondo ezagutu eta saihesten lagun diezaguketenak badira».

Bertako jendea eta laguntza-sistemak edukitzea ezinbesteko izan liteke hondamendiak jotzen duenean. 1998ko urrian, Mitch urakanak Erdialdeko Amerika suntsitu zuen, 9.000 lagun hilik eta 100.000 etxerik gabe utzita. Horri erantzuteko, WFP, finantziario bereziaren bitartez, sistemak eraiki edo berreraikitzen laguntzen hasi zen. AWWAko sekzioek eman zuten laguntza eskuzabalari eta gizabanakoei gehi beste erakundeei esker, guztira 96.000 dolar eskuratu ziren Honduras eta Nikaraguan 30 ur- eta sanitate-proiektu nagusi finantzatzeko; honela, 16.000 biztanlek jaso ahal izan zituzten onura horiek.

Logistika abantailez gain, *Adopt-A Country* programak “munizio” gehiago eskaini zien WFPko “soldaduei”. Sobiech-ek azaltzen duenez: «herri askotan oinarriko proiektutik proiektura tiro bateko ahalegin txikiak eginez ibiltzeak administrazio-kostuak garestitu egiten ditu oso. Herri bateko proiektu bateratuak, ordea, administrazio-kostuak gutxitu egiten ditu». Lehen, komunitateek, zenbaitetan, behar-beharrezko zituzten lanetan etenaldiak gertatzen ziren, besterik gabe proiektuak ez zirelako emaitzen gogoko. Herri batean partzuergo eran jarritako diruak segurtatzen du proposamen guztiak finantzatzeko direla, nahiz eta ez izan batere erakarriak.

Artsenikoaren (As) kutsadurak Bengalako Mendebaldean hartu du

WFP, honekin kidetuak dauden erakundeak eta komunitate onuradunak izaten dira sustatzaile nagusiak proiektu gehientsuenak hautatzen eta garatzen. Halaz ere, WFPren ahaleginen % 5 proiektu independenteak dira, emaitza erakundera ekarritakoak, AWWAko kideen edo beste erakunde batzuen bidez. Proiektu horiek —askotan irtenbiderik gabe geratuko ziratekeen egoera larrietara bideratuak izaten dira— ehunka mila egoiliarri eskaini diezaiokeke laguntza; halakoxea da, esaterako, Bengalako Mendebaldean, Indian, garatuz doan proiektua.

Artsenikoz kargatutako urak osasun-krisia sortu du

Bengalako Mendebaldean eta aldameneko Bangladesh herrian, tamaina itzeleko osasun-krisia hedatzen joan da emeki-emeki. Delta Garaiko ordokipetik doazen lurpeko urak, Bengalako Mendebaldeko Bhagirathi eta Bangladesheko Padma ibaien artekoak, artsenikoaren kontzentrazioak kutsatu ditu, zilegi den 0,05 mg/l-ko muga gaindituz. Askotan artsenikoaren kontzentrazioak 0,15 mg/l-tik 0,5 mg/l-ra bitartean ibiltzen da. Zenbaitetan, Bengalako Mendebaldeko bi kokalekutan, 5,0 mg/l-raino ere iritsi izan dira³.

Akuiferoen eskualdean artsenikoarekin gertatua faktore geologikoei egotzi izan zaie; uretako artsenikoaren mugikortasuna, izan ere, kultibatu bitartean lurpetik ur gehiegi ateratzearen edo artsenikoa pestizidak eta ondorengo fosfatodun ongarria erabiltzearen ondorio izan daitekeelakoan daude; edo biena. Hobetu diren lagin-bilduma eta analisisiek erakutsi dute aurrez uste baino artseniato [As(III)] ugariago dagoela. Artsenitoaren [As(V)] aldean, As(III) mugikortasun handiagokoa da eta 2-60 aldiz toxikoagoa.

Lurpeko ur kutsatua dute iturri bakartzat 2 milioi lagunek, eta barreiatutako pu-tzuetatik ur hori atera behar izaten dute eskuzko ponpak erabiliz. Artsenikoa giza gorputzean metatzearen ondorioak ondo jakinak dira: larruazaleko lesioak eta zir-kulazioaren eta nerbio-sistemen nahasteak. Artsenikoz pozoitutako Bengalako Mendebaldeko herritarren artean, besteak beste, ondoko agerpen klinikoak daude: ahurretako eta oinazpietako hiperkeratosia eta hiperpigmentazioa, artseniko der-matosia, larruazaleko minbizia, eta urdail eta hesteetako sintomak, goragalea, sabelaldeko mina eta beherakoa.

Egiaztaturik dago artsenikoak kutsatutakoaren sintomak areagotzen ari direla ur kutsatua hartu denetik urte batzuetara. Bengalako Mendebaldeko krisia hedatzen joan da urtetik urtera, eta honi irtenbidea eman nahi bazaio, arduraldia, trebezia eta diru-iturriak biltzen dituen konpromisoa hartu beharko da. 1996ko urtarrilean, WFPk ekin zion Bengalako Mendebaldean artsenikoa erazteari proiektu independente gisa. WFPk jakinduria handiko bertako kidea lortu zuen, Bengalako Ingeniaritza Eskola (BEC), Howrah-en, Indian hain zuzen ere; eta BEC-i 10.000 dolarreko beka pilotua eman zion nekazaritza-eremuko herriei egokitutako artsenikoa erazteko teknologia garatzeko.

3. Proc. 1997. Arsenic Monitoring and Treatment Training Workshop. Envir.Engrg.Lab, Civil Engrg. Dept., Bengal Engineering College (Deemed University), Howrah, India.

Teknologiak soila eta praktikoa behar du izan

Proiektuko lankideek aitortzen dute Bengalako Mendebaldeko artsenikoa erauzteko teknologiak eraginkorra ez ezik soil samarra ere izan behar duela, erabilerari eta mantentzeari dagokionez. BEC-eko hiri-ingeniaritza saileko ingurumene-ko ingeniaritza-laboretegiak test-lote bat zuzendu zuen artsenikoa erauzteko bitarteko eraginkorrena zein izan zitekeen ezagutzeko. Aplikazio-eremuaren mailan, alumina aktibatua (AA), sosa kaustikoez, azido klorhidrikoez edo biez aurretraturik, artsenikoa erauzteko ahalmen handiena zuela egiaztatu zen. Zutabe-testek erakutsi zuten bitarteko horrek 5 minutuko kontaktuan 1.000 geruza-bolumen erauzteko ahalmena zuela.

Hala, BEC-ek artsenikoa erauzteko etxeko unitatea garatu zuen. Unitate horrek bi ganbera ditu; goikoak aurretraturiko AA [2,75l (0,7 gal)] biltzen du. Goiko ganberan dagoen ura bitartekoan zehar jariatzen da eta beheko biltegitratze-ganberan jasotzen da. Erabilerrazagoa egiteko (batik bat bitartekoa berrerabili eta berrizatzeko), bitartekoa hondo iragazkorra duen nylonezko poltsa iragazgaitz baten barruan ixten da. Poltsa hori lekutik kendu, berrerabili edo berrizatu egin liteke, eta unitatea bitarteko berria duen beste poltsa batez berriro hornitu. Unitate bakoitzak 25 dolar balio du, gutxi gorabehera.

Proiektuaren fasearen hasieran, artsenikoa erauzteko lau etxeko unitate instalatu eta probatu ziren. Gutxi gorabehera, sei hilabeteko iraupena zuten (ur gordinak zuen artsenikoaren arabera); etxeko unitate horietako batek, ordea, zortzi hilabetean ongi funtzionatu zuen.

Etxeko unitate horiez gainera, iturburu bateko artsenikoa erauzteko unitatea, eskuzko ponpaduna, instalatu eta probatu egin zen. Unitate hori altzairu herdoilgaitzezko zutabe batez osatzen da (300 mm-ko diametrokoa eta 2,2 m altukoa (7,2 oin/51 hazbete) (2. irudia). Ura jariatzen da beheantz 1,300 mm-ko (51 hazbete) AA bitarteko geruza eta 200 mm-ko (8 hazbete) legar-ohantze trinko batean zehar.

Kaltetuetako herri batean iturburuko unitatea instalatu zen, eta 0,48 mg/l artsenikoaren kontzentrazioa zuen 39.000 litrotik (10.000 galoi) gorako ur gordina tratatu zuen era egokian. Iturburuko unitateak 900 dolar balio zuen, eta sei hilabete ondoren kendu eta berritu behar izan zen bitartekoak 25 dolar. Kostu handiago horren ordainetan jende kopuru handiago bati segurtasunez ura edateko hornidura-zerbitzua ematen zitzaion. Horrez gain, iturburuko unitatea etxekoa baino egokiagoa da, mantentzearen eta kontrolatzearen ikuspegitik.

Proiektua bigarren faserako bidean

Herri-mailan artsenikoa erauzteko teknologia egokia gara daitekeela ikusi ondoren, BEC eta WFP Bengalako Mendebaldeko proiektuaren bigarren fasean murgildu ziren. Dozena bat etxeko unitate edo gehiago instalatuak daude; baita iturburuko unitateak jarrita ere (ez ditu, halere, denak WFPk diruz lagundu). Hainbat nekazari-herritatik 25 eskuzko ponpatan artsenikoa erauzteko unitateak instalatzeko plan-eskaera egin zen. Proiektuaren fase honetan funtsezkoenetakoa da komunitatearen partaidetza sustatzea, hezkuntza-eredua garatzea, eta

beharrezko ahalmen instituzionala bideratzea, unitateak eragin, mantendu zein bitartekoa berrizatzeko erantzukizunak bere gain har ditzan.

Nahiz eta artsenikoaren pozoiak ondorio metagarriak izan, eta urteak beharko diren gaixotasunak atzean uzteko, Bengalako Mendebaldeko proiektuak dagoeneko herritarren bizitza aldatu du. «Indigestioa eta disenteria kronikoa izaten nituen», dio emakume batek. «Orain, berriz, ez dut horrelako arazorik, eta jangura etorri zait. Hilabeteko 150 rupia (3,43 dolar) xahutzen nituen sendagaietan; orain, ordea, diru guzti hori aurreratzen ari naiz»⁴. Proiektuaren hondarreak Bengalako Mendebaldeko 312 herritako 800.000 biztanlerengana iritsiko delakoan daude; eta jende horri guztiari onurak edateko uraren hornidura eta osasuna hobetzetik bakarrik ez, komunitatearen azpiegitura sendotzetik ere etorriko zaizkio.

Europako Ekialdean egindako ahaleginak lankidetzako proiektuen eredugarri

Azkenetako WFP proiektuen % 15 lankidetzan atera dira aurrera, bai nazioarteko garapenerako erakundeekin bai beste agentziekin. 1992an, WFP eta SBko Ingurumenaren Babeserako Agentzia (USEPA) elkarlanean hasi ziren Europako Ekialdeari edateko ur-zerbitzua emateko lankidetzak-hitzarmena sinatu zutenean. SBko Nazioarteko Garapenerako Agentziak (USAID) milioi bat dolarreko diru-laguntza eskaini zuen, eta WFP diru horretaz baliatuz Bulgaria, Hungaria, Eslovakia, Polonia eta Ukrainako hainbat proiektu zuzendu zituen.

Europako Ekialdeko herrietako ur-hornitzaileak ur-iturrietan eta tratamendu teknologiko berrietan jantziak omen zeuden. Baina ur-jarduerak estatuaren kontrolpetik lurraldeetakoetara pasa zirenean, zerbitzu eta diru-laguntzen kudeaketa arloan, epe luzerako plangintzan, heziketan eta komunikazio publikoetan lagunduko zieten adituen beharra zuten. Eginkizun horretarako zolitasun-premiak aukera paregabea eman zien WFP programetan lanean hasteko irrika bizian zeuden AWWAko boluntarioei. Garabidean zeuden herriek profesional boluntario adituen behar handirik ez bazuten ere, trantsizio bidean zeuden Europako Ekialdeko herriek, ordea, honelako trebetasunak eskuratzeko eskaera berezia egin behar izan zuten.

Zenbat eta kontagailu hobeak hainbat hobeto ekonomiarako

Bulgarian, bertako ur-bezero gehienek kontagailuaren bitartez jasotzen dutenez ur-zerbitzua, kontagailuaren eta ur-ihesaren kudeaketari zegokionez, laguntza beharreak zeuden. Kontagailuak desegokiak direnean, diru-sarrerak alferrik galtzen dira, beti erabiltzaile handien mesedetan. Kontagailuaren egokitasuna egiaztatzeke kendu eta jartzen ibiltzeak denbora alferrik galtzea eta kostu handia lekarke, batik bat kontagailua zehatza izatea nahi bada. Bulgariako ur-hornitzaileei ezinbesteko zaie ur-ihesaren eta ur-kontagailuen kudeaketa eraginkorra izatea, baldin eta beren ekonomia hobetu nahi badute.

Harris Seidel-ek, Ames-en (Iowa) jaio eta egun erretiratu dagoen uretako adituak, bere denbora, eskarmentua eta jakinduria jarri zituen WFPren alde.

4. Deb, A. Personal communication (1999).

Bulgariako Nazioko Ur Kalitateari buruzko Elkartearekin eta beste agentziekin lan eginez, Seidel-ek Bulgariako zerbitzuak legeztatzen eta tokian tokiko kontagailuen alderaketak eta neurketak hobetzen laguntza eman zuen, kontagailuetako akatsei eraginkorrago erreparatuz eta diru-sarreraren galerak estaliz. Horrez gain, WFPk Bulgariako ur-industriako elkarte profesional demokratikoa sortzen eta beren buruaren jabe egiten laguntza eman zuen. WFPk, lowara eta Washingtonera egindako bisita babestuen bitartez, Bulgariako uretako profesionalak hurbiletik ikusi ahal izan zuten Estatu Batuetako ur-enpresa independenteek nola jarduten zuten.

Hungariak lurpeko ura babesten du

Lurrez hesiturik dagoen Hungarian, 10,5 milioi biztanleen ehuneko 91 lurpeko urez baliatzen da edateko. Nahiz eta Hungariak nagusiki nekazaritzarako erabili lurra, industriak ur-hornidurak kutsatzeko mehatxupearan jartzen ditu, esaterako, kimikoak, farmazeutikoak elektronikoak, eta ingeniaritza astunak.

Hungariako zerbitzuetako langileak lurpeko ur-emarietan eta uraren ezaugarrietan adituak izanik ere, ez zeuden hain ohituta kutsaduraren prebentzio gaietan edo berau sistema zentralizatu batetik tokiko kontrola ematera aldatu zen herri batean inplementatzen. 1993tik 1996ra, WFPk eta elkarte honetako boluntarioek, Hungariako ministroekin eta ur-agentziekin elkarlanean, SBk eramandako esperientziak konpartitu zituzten, prozesu demokratiko batean arazo politiko-teknikoei irtenbidea emateko. Gainera, WFPk ahalbidetu zuen Hungariak eta Errumaniak mugaz haraindiko hitzarmena izenpetzea, lurpeko uraren eskualdea babestearren. Ahalegin horiek oinarri sendoa jarri zuten lurpeko ura babesteko programak eta araubide berriko jarduerak sortzeko.

Nazio berrian tokian tokiko ur-jarduerak errotuz doaz

Eslovakiak, aitzinean Txekoslovakiako parte baitzen, burujabetasun demokratikoa 1993an lortu zuenean, lehendabiziko ekimenetako bat ur- eta estolda-sarea deszentralizatzea izan zen. WFPko boluntarioek eta Ingurugiroko Ur Federazioak laguntza eskaini zieten Eslovakiako agintariei prozesu horretan inplikaturako erronkak definitzen eta beste arazo batzuk zuzentzen, hala nola, gidaritza, jabetza, kapitalen plangintza, kontularitza eta tasa-ezartzea. Amerikako zerbitzuen ikustaldian, Eslovakiako ofizialek eguneroko jarduerari aurre egiteko estrategiak bereganatu zituzten.

Polonian eta Ukrainan heziketa publikoa lehenetsi dute

Polonia Ekialdeko Europako naziorik handienetakoa izateaz gain, demokrazian eta merkatuan oinarritutako ekonomiari eta printzipioari besarkada estu-estua eman dien horietakoa da. Sistema totalitarioa duen erregimen batetik, non herritarren ahotsa isilarazita baitzegoen, demokraziara, non herritarren iritzia aintzat hartzen baitira, etorri da; eta erronka berri horri aurre egin behar izan diote Poloniako ur-agentziek. Herritarren kontzientzia eraikitzen joateko eta edateko urarekiko ardua areagotzeko asmoz, WFPk talde bat osatu zuen tokiko GKE batekin, Eskualdeko Ingurumeneko Heziketa Zentroarekin (ROEE akronimo poloniarrez ezaguna), hain zuzen. Blue Thumb (Erpuru Urdina) proiektua jarri zuten abian; eta saritutako AWWAren hezkuntza-kanpaina eredugarriaz, komunikazioan eta harreman

publikoetan adituak ziren AWWAko boluntarioez, eta USEPAREN diru-laguntzaz baliatu ziren.

Handik bost urtera, 150 Blue Thumb elkartetik gora jalgi ziren, eta Polonian zehar 4.000 ikasle eta irakasle erakarri zituzten. Herritarren eskaerari esker programa horren inguruko partaidetza areagotzen joan zen, eta, besteak beste, hiriko agintariak eta buruak, ur- eta estolda-zerbitzuetako langileak, enpresetako jabeak eta hedabideetako kideak hartu zituen barne. Blue Thumbek hezkuntzaren alde egindako ahalegin horiek indarra hartu zuten WFPk Krakoviako Uren eta Hondakin-Uren Zerbitzuari harreman publikoetarako programa abiarazten eta Krakoviako Uraren Astea antolatzen lagundu zionean. Bien bitartean, Poloniaren kontzientziatze publikoen kanpainaren arrakastak diru-iturri berriak erakarri zituen: adibidez, Ingurumena Babesteko Poloniako Fundazio Nazionalak 43.000 dolar eta USAID-Poloniak 18.000 dolar baino gehiago jarri zituzten proiektuaren alde.

Polonian Blue Thumbek lortutako egundoko emaitzak ikusirik, USEPAk WFPri Ukrainan, Lviv-tik gertu, antzeko eskola-hezkuntzako programak eta eztabaida publikoak errepika ditzala eskatu zion. Hamarna mila dolarreko diru-laguntza lortu zuten, ondoko erakundeek jarrita: Lviv-ko Uren eta Hondakin-Uren Zerbitzuak, EcoGeoFundek eta Mendebaldeko Ukrainako Baliabide Zentroak. Krakoviako ROEEK ere beste 5.000 dolar eskaini zituen poloniarrek eta ukrainarrek esperientzia publikoaren berri elkarri eman ziezaioten. Lviv-ko Blue Thumb programaren emaitzaren ondorioz, zerbitzuaren baitako harreman publikoetarako bulegoa sortu zen, bezeroentzako oinarritzko ur-baliabideei buruzko informazio-orriak argitaratu ziren eta zerbitzu publikoaren gaineko iragarkiak telebista eta irrati bidez eman ziren.

WFP egokitzen ari da behar eta erronka berriei aurre egiteko

WFP mende berri baten atarian dagoenez, bere rola eta programak garatzen ari da laster etorriko diren erronkei aurre egiteko. Garabidean eta trantsizio bidean dauden herrietako ur- eta osasun-proiektuek ardatz garrantzitsuak izaten jarraitzen badute ere, eskualde berrietara iritsi behar da. Sobiech-ek WFP erakundearen eginkizuna Afrikan indartu behar duela ikusten du; izan ere, bizi-kalitatearen eta osasunaren adierazleen sailkapenean behe-behean baitago.

Datozen urteek heziketan indar handiagoa jartzea ere ekarriko dute, eta ez bakarrik garabidean dauden herrietan. WFPk nahiko luke Ipar Amerikako jende gehiago ur-arloko nazioarteko lankidetzan hezteko, eta irtenbidera gerturatzeko erakundearen kontzientzia handiagoa sustatzea. Sobiech-en arabera, «herri garatuetan bizi diren herritarrek hobeto ulertu beharko lituzkete garabidean dauden herritarren zailtasunak, bai urari buruzko egoera larrian, eta bai laguntza emateko biderik eraginkorrean ere. Ahaleginen berri emateak diru-bilketarako konpromiso baten eskutik joan beharko luke (ikus eranskina).

Proiektuen onuradunei heziketa eta trebakuntza ematea lehenetsi beharko litzateke; izan ere, Sobiech-ek adierazi bezala, «Adreiluak eta morteroak ez dira behar bakarrik. Esaterako, higieneari dagokionean jendea ez badago hezia, ur garbia ez da den-denetarako erremedioa izango». Partaidetza sendoagoa partai-

detza hobe delarik, WFPk ahalegin handiagoak egingo ditu erakundeak eraikitzen, GKE eta tokiko gobernuetako partaideei prestakuntza eta tresneriak eskainiz komunitate onuradunak hobeto laguntzeko.

Estatistiketan gora egiten duten hirietako pobreak lagundu nahirik, WFPk bide berriak errazteko duen xedea eta erakunde eraikitzailearen rola bat datoz. Diru-laguntza banatzen doan bankari baten roletik harantzago joan nahi du erakundeak. Sobiech-ek honela dio: «Guk ezin dugu dirua eman azpiegiturak jartzeko, beharrak handiegiak baitira. Nahiago dugu zuzenean jendearengana jo bere burua lagun dezan laguntza eskainiz. Hirietako pobreei oinarrizko zerbitzuak izan ditzaaten laguntza eskaintzea —bat eginik tokiko gobernu eta GKEekin— 2000. urteko eta hurrengo urteetako erronkarik handiena izango da, segur aski».

Historia labur honetan, WFPk urrats berriak egin ditu, edateko ur osasungarria eta osasun-sistema egokiak babesteko aginduriko misioan aurrera egin duen neurrian. Ekialdeko Europan, esaterako, WFPk rol estrategikoa jokatu zuen demokraziarako eta merkatu libreko enpresarako bidean, eta milioika jenderentzako oinarrizko zerbitzuei eutsiko dieten elkarte profesionalak eta erakundeak sortzen. Lagundu zuen, esaterako, nazioen arteko mugak gainditzen dituen lurpeko ura babesteko hitzarmena negoziatzen. Gerora begira, Sobiech-ek irudikatzen du erakunde nazioarteko garapenerako jarduera hobeak adoretuago sustatzen, eta zerbitzu orokorrekin eta eskualdeetako gobernuarekin bat eginik, politika kritikoa alde jokatu. Aurrerantz doan WFPren bilakaerak nekazari-herrietan estolderia-proiektuak antolatzen nazioarteko politika-arloa eraman du. Azken xedea berbera du, halere: bizimodua hobetzea, aldiko komunitate oso batena.

Eranskina: *Water For People* erakundearen misioa nola babestu

Munduko hainbat lekutan, ezer gutxi asko egin dezake. Munduko Bankuaren arabera, garapen bidean dauden herrietako 1.300 milioi biztanle bizi da eguneko dolar bat baino gutxiagorekin. Ez da imajinario asko behar konturatzeko dohaintzak, baita txikiak ere, laster zein garrantzitsu bilakatzen diren, zenbait bizitzatan aldaketa nabarmenak ekarritik. Esaterako:

- 100 dolarrekin etxeko eskuzko ponpa eros eta instala daiteke, honela Malawiko familia batek ez du ibilbide luzea egin beharko edateko ur osasungaitza ontzi batean garraiatzeko;
- 500 dolarrekin txorrota-gune bat ordaintzen da, lehen erreka erre batetik ura jasotzen ibiltzen zen Boliviako familia batentzako;
- 1.000 dolarreko diru-laguntzarekin Vietnamgo hiru oinarrizko eskolako ur-sistemak eta baita osasun- eta higiene-ikastaroak finantza daitezke.
- 2.000 dolarrekin Hondurasko 200 biztanle ur osasungarri hornitzen dira, urandelak eta ura banatzeko sareak konponduz; eta
- 2.500 dolarrekin Guatemalako herri bat 25 komun higienikoz horni daiteke.

Lantokitikako Dohaintza Programan izena emanaz

Lantokitikako Dohaintza Programaren bitartez, nork bere hilabeteko lansariko soldatatik kendurik, adibidez dolar bateko dohaintza txikia egin dezake —25 dolar urteko— garapen bidean dagoen herritar batek edateko ur osasungarria izan dezan. AWWAren elkarteari esker, WFPk adiskide bat du Ipar Amerikako ur-zerbitzu bakoitzean, eta horietako askok parte hartzen dute Lantokitikako Dohaintza Programan. WFPko komunitate-harremanetarako zuzendari Judi Kraszewskik dioenez, tamaina ez da garrantzitsua: «milaka langile dituzten zerbitzuek hartzen dute parte; baina baita 5 langile dituztenek ere». Hainbat bulegotan, lantokitikako dohaintza-mekanismo egokiak jarri dira abian, hala nola, Bide Bateratua, Nazioarteko Zerbitzu Agentziak eta Kanpaina Federal Konbinatuak; baina enpresek ere beren gisa parte har dezakete. Lantokitikako Dohaintza Programa boluntarioen beharrea dago, enpresa berriak biltzeko eta erakundeen partaidetza bitarteko izateko. Informazio gehiago izateko eta dohaintzak bideratzeko, Kraszewskirekin jarri harremanetan honakoan (303) 734-3494, e-mail<judi@water4peopple.org>

Nork bere babes-ekarpena eginez

WFPren babespean egindako emariak 500 dolarretik 50.000 dolarrera bitartekoak dira, eta programak garatzen eta proiektu berriak zehazten laguntzen du. Babes-ekarpenak Kiwanis elkarteetatik, Rotary taldeetatik, fabrikatzaileengandik, zerbitzuetatik eta norberak egindakoetatik datoz. Gutxienez 500 dolarreko emaria egiten duten babesleen izenak WFPren argitalpenetan eta erakundearen Web orrian datoz, eta AWWAren Urteko Biltzarrean esker ona jasotzen dute. WFPko diru-bilketarako zuzendaria Amy Douglasekin jarri harremanetan, telefono honetan (303) 734-3492, edo e-mail honetan <amy@water4people.org>

Geroko emaria, ondarea edo plan baten barruko beste edozein emari gogoan hartuz

Zenbait lagun eskuzabalek beren testamentuetan WFP ere onuradun egin dute. WFPk, programak laguntzearen, atsegin handiz jasotzen ditu esku-dirutan emandako ondareak, akzioak, diru ez diren ondasun pertsonalak edo plan baten barruko beste edozein emari. Emari horiek, gainera, onura fiskal baliodunak, bizi-tzeko errentak, edo biak lortzeko modua eskaintzen dute. WFPko Kraszewskirekin jarri harremanetan.

Herri bat adoptatuz

Herri bat Adoptatu Programaren bitartez, WFPk diru-laguntza eta pertsonala elkartu ditu baliabideak sendotzeko. Orainsu, AWWAko dozena bat sekziok baino gehiagok eman dute izena herri bat adoptatzeko eta bertako WFP proiektuak diruz laguntzeko. Harremanetan jarri WFP proiektuko zuzendari Jody Campekin (303) 734-3493, e-mail<jody@water4people.org>

Denbora eta eskarmentua eskainiz

Dirutan egindako dohaintzaz gainera, WFPren misioarekiko laguntza sendotzekotan, ur-gaietan adituak direnek denbora eta eskarmentua jar ditzakete edateko

ur osasungarria, sanitatea eta higiena mundu guztiko jendearengana hel dadin. Informazio gehiago izateko ikusi WFPren Web orria <www.water4people.org>.

Batzordekide eginez

AWWAK dituen eskualde-sekzioetatik 43k baino gehiagok diru-bilketa egiteko, heziketarako eta jarduera-proiektuak abian jartzeko batzordeak sortu dituzte, berorien bidez WFPren misioa aurreratzen baita. Toki bakoitzeko WFP batzordeen ordezkariekin honako helbidean jar daitezke harremanetan: <www.water4people.org/committe/chairs.htm>.